

laister berri



Beasaingo udala

167 | APIRILA 2008

001

AURKEZPENA

002

TAILERRA

003

BEASAIN
LORETAN

004

UDALTZAINGOA

005

ERAKUSLEIHO
LEHIAKETA

006

GOIENIZ

010

EKINTZAK

laister berri

ANTZERKI GARAIA

Apirilak 4, ostirala, 22:15ean
GRONHOLM METODOA



Zuzendaria: Carlos Zabala

Multinazional batean, exekutibo-plaza bat betetzeko azken lau hautagaiak gela batean bildu dituzte, hautaketa-prozesuaren azken probak egin ditzaten.

Kosta egiten da sinistea lanpostuari berari dagozkion probak direnik, hain dira zentzugabeak denak. Pertsonaiak jolasean dabilta, egia eta gezurra bereizteko ahalegin antzuan.

Hautagaiek gainditu behar dituzten proba guztiak, gezurra badirudi ere, langileak aukeratzeko teknika errealean oinarritutakoak dira. Obra honek probak muturrera eramaten ditu, eta hala agerian uzten dute beren baitan duten komikotasuna.

laister berri

Diseinua:

ah_comunicación

Maketazioa:

ah_comunicación

Erredakzioa:

ah_comunicación

Publizitatea:

ah_comunicación

Imprimaketa:

Gráficas

San Martín C.B.

Lege Gordailua:

SS-654/96

Erredakzioa

helbidea:

Martina

Maiz 3/2.

bulegoa

T 943 882 257

F 943 027 639

E ah@click.ah.com

Beasaingo Kultura Batzordeak aldizkari honen 6.500 ale banatzen ditu hilabetero Beasaingo postontzietan.

Eragilea:

kultura saila



Beasaingo udala

Antzerki Garaia_001

laister berri

TALLERRA



TAILERRA:

Beasaingo Udalak Gizarte Ongizate sailaren bidez "Belaunaldien arteko elkar-laguntza" izeneko tailerra antolatu du beraien bilobak zaintzen dituzten aitona-amonentzat, "Bilobak egunero zaintzeko ardurak gehiegizko karga eta estresa ekar ditzake" lelopean hainbat eduki sakonduko ditu tailerrak.

TAILERRAREN EZAUGARRIAK:

NORI ZUZENDUA.

Bereziki beraien bilobak zaintzen dituzten aitona-amonentzat.

EGUNAK.

Martxoaren 31tik apirilaren 10a arte astelehenetik ostegunera (martxoak 31 eta apirilak 1, 2, 3, 7, 8, 9, 10).

ORDUA.

15:00etatik 16:15era.

LEKUA.

Erretiratuen Etxea.


TAILERRA DOAKOA DA.

TAILERRAREN EDUKIAK:

Familia ereduaren aldaketa; adineko pertsonen beraien seme-alabei eta bilobei ematen dieten laguntza; aitona-amonengan sumatzen diren sintomak; estresaren kausak; egoera hauen aurrean, familiak nola jokatu behar duen; zaintzaileak duen estresa nola bideratu daitekeen; eta pentsamendu positiboa izango dira tailerrak landuko dituen edukiak.

laister berri

BEASAIN LORETAN



Beasaingo Udalak Zerbitzu Sailaren bidez udalerria txukun mantentzeko hainbat lan egiten ditu urtean zehar; eta udalerria janzteko lorategietan ahalegin berezia egiten du. Ahalegin honen leiho udaberri honetan ikusten ari garen kolore eta konposizio ikusgarriak.

Udalak aspalditik du lorategi eta berdeguneen mantenimendu zerbitzua Goroldi enpresaren bitartez. Enpresa honetako langileen artean egun ospetsu diren hainbat aholkularik egin du lan Beasaingo lorategi eta berdeguneetan. Izan direnen artean ondorengoak aipa ditzakegu: Jakoba Errekondo, Iñigo Segurola eta J. M^º Arsuaga egungo aholkulari dena.

Ahalegin honetan Udalak hainbat ideia berritzaile abian jarri izan ditu; lehengo baratza egungo lorategi bihurtzea, edo Bideluze zubiko lore estuktura.

Goza dezagun Beasain loretan!

laister berri

UDALTZAINGOA. 2007eko JARDUERA



Ayuntamiento de Beasain - Windows



Beasaingo Udalak udaltzaingoa jarri du onura berekoen laburpena jasotzen da txosten honetan.

Ikus daitekeen modura, era askotako lanak egiten dituzte udaltzainek, eta saiatzeko dira, beharrak ikusita, ahalik eta erantzun egokiena ematen.

Memoria honetan udaltzainek egunerokoan egiten dituzten lanen berri eman nahi da, eta horiek batera udaltzaileen lana guztiok baloratzea da gure nahia eta helburua.

TRAFIKO ARLOA

ZERBITZU BEREZIAK

ADMINISTRAZIOA eta ISUMAK

UDAL ORDENAMANTZAK

TRAFIKO ARLOA

- Zirkulazio Istripuak	90
- Atestatuak	3
- Txostenak	32
- Alkoholemi probak	2
- Abandonatutako Ibilgailuak	26
- Garabi Zerbitzua	27

laister berri

ERAKUSLEIHOEN LEHIAKETA



- 1.-Lehiaketan parte hartu nahi duten Beasaingo Merkataritza Establezimenduek har dezakete parte. Horretarako apirilaren 28, 29 eta 30ean izena eman beharko dute Dolarea jabetzean, Nafarroa etorbidea 21, edo 650.600.489 telefonora deituta.
- 2.-Erakusleihen dotoretasunean edozein eratan egindako lanak onartuko dira, eta establezimenduan saldu ohi diren artikulak egon beharko dute.
- 3.-Erakusketa maiatzaren 2tik maiatzaren 11ra bitartean (Beasaingo Loinatz Jaietan) izango da ikusgai, biak barne, eta lehenengorako erakusleioa muntatuta egon behar du.
- 4.-Epaimahaia jendeak emandako botoez osatuko da.
- 5.-Botoa eman nahi duten pertsona guztiek, Beasaingoak izan edo ez, honela egin beharko dute: Segura Irratira deitu 943 801 041 edo 943 801 347 telefonora, maiatzaren 7, 8 eta 9an eguerdiko 12,30etik 13,00etara "Lore artean" programa.
- 6.-Pertsona bakoitzak boto bakarra eman ahal izango du.
- 7.-Segura Irratiak "Lore artean" programaren bitartez, pertsonen deiak jasoko ditu, eta pertsonen izen, abizenak, helbidea, telefonoa eta botoa hartuko ditu.
- 8.-Botoa emateko Segura Irratira deitzen duten pertsonen artean Bareakeko denda/tabernetan erosketak egiteko 100 euroko bi bale zozketatuko dira.
- 9.-Sari bakar bat emango da, boto gehien jaso duen dendari emango zaiona, hain zuzen ere. SARIA: Plaka edo trofeoa izango da.
- 10.-Saria ezingo da banatu bi edo establezimendu gehiagoren artean.
- 11.-Botoen emaitza eta erabakia maiatzaren 10ean emango da jakitera irratian eta maiatzaren 11an kronikan, eta beraz apelaezina izango da. Saria, Bareak Elkartean emango da maiatzaren 11n 12,00etan.
- 12.-Lehiaketa honetan aurkezte soilak oinarriak goitik behera onartzea suposatzen du.

laister berri

GOIENIZ

LA BODA DE TUYA



Apirilak 3,
osteguna.
Zuzendaria:
Michelangelo An-
tonioni (1950)

Enpresa gizon batek bere emaztearen, Paola, argazki zahar batzuk ikusten ditu. Bertan aspaldian maite izan zuen gizon bat agertzen da, Guido, Erlazio horrekin zer gertatu zen jakin nahian ikertzaile bat kontratatuko du. Guido Paolaren lagunik hoberenaren mutil laguna zen. Lagun hau auto istripu batean hil zen. Baina, istripua izan al zen benetan? Ikerketak Paola eta Guido berriro elkartuko ditu, antzinako maitasuna berpiztuz.

8 1/2



Apirilak 17,
osteguna.
Zuzendaria:
Federico Fellini
(1963)

"Ocho y medio" filmak, zineman adituak direnen esanetan, Felliniren lan guztiak batzen ditu. Sormen blokeoa duen zuzendari batek (Mastroianni) egin nahi duen pelikula bati buruzko "metazine" aniketa bat da, zinema zinemaren barruan, hain zuzen.

ROCCO Y SUS HERMANOS



Apirilak 10,
Osteguna
Zuzendaria:
Luchino Visconti
(1960)

Irakeko gerraren ondorio lazarri gisa eman zuten haren berri hainbat komunikabidek. 2006ko martxoan, Mahamudija herrikan sartu zen AE-Betako marine patrula bat. Mendeku bila zebiltzan soldaduek ordu batzuk lehenago, erresistentziaren bonba batek taldeko kide bat hil zuen, eta giroa gori-gori zegoen. Etxe batean sartu eta nerabe irakiar bat bortxatu zuten soldaduek, eta ostean, neskatorearen familia osoa hil zuten.

EL DECAMERON



Apirilak 24,
Osteguna
Zuzendaria: Pier
Paolo Pasolini
(1971)

Pasolinik film honen bitartez sexualitatearen alderdi natural eta barregarriena agertu nahi izan zuen, tabuak alde batera utziz. Bertan Napolesen giroturiko bederatzi ipuin kontatzen dira. Cinari bezala Giovanni Boccaccio-ren ipuinak hartu zituen. Filma estreinatu zenean Espainian ez zen ikusi ahal izan, pornografikotzat jo zen eta.

GOIENIZ_006